

EUSKARA IKASTAROAK: 2018/2019ko deialdi orokorra

Murrizketetan are sakonago

Euskara ikastaroetako 2018/2019ko deialdi orokorra atara berri du Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak (hilak 25, eskabidea aurkezteko muga).

Pasa den hilean deialdiaren zirriborroa bidali ziguten aportazioak egin genitzan. Murrizketak gero eta gehiago eta sakonagoak zirela ikusirik, urtero bezala alegazioak egin genituen. Eta urtero bezala ez digute ezer onartu.

Aspaldi-aspalditik LABek bestelako eredu eskatzen du euskara ikasteko eta erabilera normalizatzeko, baina gure planteamenduak entzun beharrean murrizketa gehiago asmatzen dituzte.

Iazko berrikuntzetako larrienatakoa honakoa izan zen: euskara ikasteko liberazioak lauhilekoak izango dira eta ikasturte osoan gehienez jota 36 liberazio onartuko dituzte; hortaz, bigarren liberazio bat lortu ahal izango da baldin eta deialdi orokorrean 36 horiek guztiak ez badira banatu.

Deialdi honetan ondoko murrizketak sartu dituzte:

- C1 (3.HE lortzeko maila) da langa, hortik gora ez dago ikasterik. 4.HE prestatzeko aukera kendu zuten aspaldi baina 3.EH egiaztatu arte bazegoen ikasteko aukera denentzat. Orain, berriz, kudeatzaileei eta auzitegi medikueei baino ez zaie onartzen ikasten jarraitzea C1 (3.HE) **egiaztatu arte**. Beste kidegoetako langileek, C1 mailara heltzean (**egiaztatu zein ez**) ez dute ikasten jarraitzeko baimenik lortuko.

Murrizketa horrek dakar, adibidez, promoziorako oztopoa. Demagun izapidegile bat: ikasten hasi eta bere lankidegoari dagokion HE (2.HE) egiaztatu egiten duela. Errazena eta pedagogikoena izango litzateke etenik gabe jarraitzea 3.HE lortu arte, horrela kudeatzailea izango denean erdietsia izango luke perfila. Bada ez, murrizketa berrien arabera, eten egin beharko du ikasketa eta gero, kudeatzailea izanik, berriro ekin ikasteari.

- *“**Liberazioa** eskatu ahal izango dute euren lanpostuari dagokien euskara maila (egiaztatuta ala ez) oraindik lortu ez duten pertsonak”* dio hitzez-hitz deialdiak.

Lehen, lankidegoari dagokion HE egiaztatu arte zegoen liberazioa lortzeko aukera; orain aldiz, dagokion mailara heltzean Justizia Sailak ez du liberaziorik emango, **HE egiaztatu gabe egon arren**.

LABekook hasieratik esan dugu: 2.HE ez nahikoa da Justizian ohikoa den berariazko hizkera maila menperatzeko. 3.HE da orokortu beharko litzatekeen eskakizuna kidego guztientzat.

- Lanaldiaren erdia edo herena murriztua dutenei ez die baimenik emango Justizia Sailak lanordutegian ikasteko. Aurreko ikasturteko deialdi osagarrian lehenengoz sartu zuten **murrizketa baztertzaille hau**. Eta baztertzaillea diogu lanaldia laburtzeko eskatzen duten gehien-gehienak, zorritzarrez oraindik, emakumeak baitira.

Lanaldia laburtu behar duen langileak ez du eskatzen gutxiago lan egiteko eta gutxiago kobratzeko, lana eta familia bateratzea ezinbestekotzat duelako baizik. Hortaz, lanaldia (dagokion proportzioan) bete eta gero euskaltegira joan beharrak dakar berez aukeratu behar izatea: euskara ikasi ala familia artatu. Bitxia da oso, batetik kontziliazioa eta bestetik euskara sustatzeko Jaurlaritzak duen era, bai horixe.

Honen inguruan aurretik ere egin du LABek alegazioa baina berriro azpimarratu nahi izan dugu **oso neurri baztertzaillea eta emakumeen eskubideen aurkakoa delakoan**.

Ez dira, ordea, egindako alegazio bakarrak aurrekoak. Urtez urte pilatzen joan diren alegazio guztiak berretsi egin ditugu, hala nola 2011n kaleratutako trebatzaileak berrezartzea; liberazioa 0 mailatik eskaintzea; euskaltegirako joan-etorriak egin ahal izateko behar besteko denbora onartzea; 4.HE prestatzeko ikastaroa berriro sartzea deialdian...

LABen ustez, bada garaia Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika goitik behera berrikusteko baina horretarako gogoia eta dirua beharrezkoak dira eta, agerikoa denez, gobernu ez dago prest.

2018/05/17